

## GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y  
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO  
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA  
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y  
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL  
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Erregina berorren gorentasunak astelehen honetan Tuterako Gaztambide Antzoki berritua inauguratu eta Almirantearen Etxea bisitatuko du

*Sofia erreginak Tuteran bere izena duen ospitaleko ordezkari-tza ere hartuko du, zentroaren 25. urteurrenean*

Viernes, 25 de marzo de 2011

Sofia Erreginak Tuterara bisita ofiziala egingo du datorren martxoaren 28an, astelehenean, Gaztambide Antzoki berrituaren inaugurazio-kontzertura joateko. Horrez gain, Erreginak Almirantearen Etxea eraikin historikora bisita egingo du. Etxea María Forcadak hiriarri dohaintzan eman dio erabilera soziokulturalerako. Eta Erriberako hiriburuko "Reina Sofía" ospitaleko ordezkari-tza hartuko du zentroaren 25. urteurrenean.

### 18:00etan, Almirantearen Etxea

Erregina 18:00ak inguruan iritsiko da Tuterara. Lehenengo geldialdia

Almirantearen Etxean izango da. Bertan, Sofia erreginari Nafarroako eta hiriko agintari nagusiek harrera egingo diote, baita Erriberako hiriburuko kultura-kolektibo esanguratsuenetako ordezkari-ek ere. Harrera XVI. mendearen hasierako eraikinaren beheko solairuko Ekitaldien Aretoan egingo da.

Jarraian, Erregina eraikin historikoaren dohaintza-emailearekin, María Forcada barruen zaharberritzailearekin, eta zentroaren kudeaketaz arduratzen den María Forcada Fundazioaren patronatuko kideekin bilduko da. Horiek epe laburreko helburuak eta proiektuak aurkeztuko dizkiote, eta jauregia nola berritu den azalduko diote.

Ondoren, Tuterako hirigune historikoko zentro soziokultural honetan José María Yturralde Valentziako pintorearen



Sofia erregina.

"El tiempo ausente" erakusketa ikusiko du eta nafar erroak dituen Levanteko artistarekin hitz egingo du.

Amaitzeko, Almirantearen Etxean, Sofía Erreginak bere izena duen hiriko ospitaleko langileen ordezkari hartuko du, zentroa sortu zeneko hogeita bosgarren urteurrenean. Hain zuzen ere, 1986ko otsailaren 20a Errege Familiako kide batek Foru Komunitatea bisitatzeko lehenengo aldia izan zen.

"Reina Sofía" ospitaleko ordezkariaren buru María Kutz Osasun kontseilaria izango da, eta alboan izango ditu Isabel Martín Osasun zuzendari nagusia eta Miguel Ángel Gil Tuterako Osasun Barrutiko zuzendaria; hauek izango dira langileen ordezkariak: María del Coro Alonso (erizaintza), Luis Fernando Pérez (zerbitzu orokorrak), Ana Beamonte (osasun arloaz besteko langileak), Mariano Hernández (barrutiko lehen mailako arreta), Patrocinio Chueca eta José Javier Catalán (medikuak), eta Enrique Martín de Marco (emakumearen artapena). Aurreikuspenen arabera, erreginari txosten irudiduna emango diote Nafarroako Erriberako ia ehun mila biztanle artatzen dituen zentroaren mende laurden honetako lorpen nagusiekin.

### **19:00etan, Gaztambide Antzokiaren inaugurazio-kontzertua**

Almirantearen Etxea utzi ondoren, Erregina 1936ko Gaztambide Antzoki berritura joango da, eta 19:00etan Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren inaugurazio-kontzertua entzungo du. Orkestrak Pablo Sarasate Nafarroako konpositorearen lanak interpretatuko ditu, Ernest Martínez Izquierdoren zuzendaritzapean, eta bakarlari moduan Tianwa Yang txinatar biolinista duela.

Kontzertuaren programan, Pablo Sarasateren "Aires Bohemios" eta "Fantasía de Carmen" lanak, A. Coplanden "Appalachian Spring" eta A. Márquezen "Danzón nº2" agertzen dira.

Kontzertuaren amaieran, Sofia erreginak Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren zuzendaritzako kideen eta musikarien ordezkari hartuko du, eta Gaztambide Antzokitik atera ondoren Foru Komunitatera egindako bisita amaitutzat joko du.

Canal 4 Navarrak kontzertua Foru Komunitate osorako eskainiko du, lehen katean 22:00etatik aurrera ikusi ahal izango den programa berezian.

Gainera, Erriberako hiriburuko eta Nafarroa osoko komunikabide nagusiek ekitaldi honen jarraipena egingo dutela baieztatu dute. Egun horretarako kazetariak akreditatu dituzte Diario de Navarra eta Diario de Noticias egunkariak; Efe, Infoto eta Europa Press agentziek; Canal 4, Canal 6, Telecinco, Antena 3, eta Buñuel eta Ribaforadako tokiko telebista-kateak; Ser Tudela, EsRadio Tudela, Onda Cero Tudela, Onda Ribera, Radio Nacional del España, Radio Euskadi eta Euskadi Irratia irrati-emisorek; eta La Voz de la Ribera, Ribera Navarra eta Plaza Nueva aldizkariak.